



Ebazpena, 2019ko ekainaren 5koa, Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena. Ebazpen honen bidez 2018/2019 bigarren zikloko haur hezkuntzako, lehen hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntza egiten ari diren ikasleen garraiorako banan-banako diru-laguntzak eskuratzeko egin zen deialdia behin-behinean esleitzen da.

Hezkuntza Saileko sailburuaren 2018ko abenduaren 18ko Aginduaren bidez, 2018-2019 ikasturteko bigarren zikloko haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntza egiten ari diren ikasleen garraiorako banan-banako diru-laguntzak eskuratzeko deialdia egin zen (2018ko abenduaren 28ko EHAA).

Hezkuntza Saileko, 2019ko apirilaren 9ko sailburuordearen Ebazpenaren bidez ebatzi zen aipatu den deialdia, behin-behineko izaeraz, 2019ko apirilaren 10ean argitaratu zen "euskadi.eus" Web-guneko iragarki taula elektronikoan, eta alegazioak aurkezteko epea ezarri zen.

Aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoren eta honako deialdi hau arautzen duen Aginduaren 8. artikulua arabera,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa: deialdian araututako baldintzak betetzen dituzten ikasleen diru-laguntzak esleitzea.

Esleitzea 718.975,06 euro, ondoren datorren moduan:

| | |
|--------------------------------|------------|
| ARABAKO Lurralde Historikoa | 340.079,78 |
| GIPUZKOAKO Lurralde Historikoa | 226.948,43 |
| BIZKAIKO Lurralde Historikoa | 151.946,85 |

Bigarrena: deialdiaren behin betiko esleipen hau eta onartuak izan diren eta izan ez diren eskabideen zerrendak argitara ematea "euskadi.eus" Web-guneko iragarki taula elektronikoan, interesdunak jakinaren gainean egon daitezen.

Hirugarrena: behin betiko ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahalko zaio Hezkuntza sailburuari hilabeteko epean, "euskadi.eus" Web-guneko iragarki taula elektronikoan ebazpen honen berri ematen den hurrengo egunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 5a

Olatz Garamendi Landa
Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea

